

Testuak: Iosu GANUZA

Argazkia: Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS



golem
DENOK
ZINEMARA!

IRUÑA | Golem Baiona - Baiona Etorbidea, 52 (6 areto)
Golem Yamaguchi - Yamaguchi Enparantza (5 areto)
Golem La Morea - La Morea Komertzial Gunea (12 areto)

LIZARRA | Golem Los Llanos - Gustavo de Maeztu, 16 (3 areto)

BILBO | Golem Alhóndiga - Arrikibar Enparantza, 4 (8 areto)

www.golem.es



**DENOK
BAZTANERA!**

Amaiera atsegina duen historia da Baztan Ikastolarena

Baztan Ikastola, gaur ezaguna den moduan, 70eko hamarkadan sortu bazen ere, haren aitzindaria 1935eko irailean sortu zen. Abiarazleak Eusko Etxeko euskaltzale talde bateko kideek sortu zuten eta haien artean Jose Azkarate aniztarra zegoen. Lehenengo egoitza gaur egungo Trinetarean inguruan zegoen, Txokoto auzoko Benitona etxean. Laster ikastola itxiarazi zuten, nahiz eta Espainiako Gerra Zibilaren aurretik, 36ko otsailean berri izen zuten.

Orduan ikasle gehiago sartu ziren, baina gerrak eztanda egin zuenean, uztailean, «ikastolako ateak bortxatu eta soldadu talde bat bertan sartu zen», azaldu dute Baztan Ikastolako ordezkariak. Orduan bukatu zen, luzarorako ikastola. Gainera, «ikastolako liburu guztiak herriko plazan erre zituzten Francoren agindupeko soldaduek», eta mahaiak, aulkiak, eta abar «eskola nazionaletan» banatu zituzten. Ikastolako sarreran, gainera, «Cuartel de Pelayos» idatzi zuten.

HEZKUNTZA TXIKITUTA, HIZKUNTZA EZ Mugatik hurbil zegoela eta edo baztandarren izaera zela eta, 70eko hamarkadara iristean, Baztan, Zugarramurdi eta Urdaizubiko herritarren %85,5 euskaldunak ziren, nahiz eta euskaraz ikasteko aukerarik ez izan. Garai hartan, jakina da, hezkuntza sistema gizartea erdalduntzeko elementu gisa erabiltzen zela. Horrek piztuta, Pablo Erasok eta Marcos Irigoienek bultzada berri bat eman zioten ikastolari, eta Baztan Ikastolako adierazten dutenez, «eskolaurreko adinean zeuden haurren gurasoengana jo zuten, banan-banan, beren seme-alabak euskarazko



irakaskuntzan matrikula zituzten bultzatzera».

Horrela, 70eko irailean Miserikordiako gela batean, Mari Carmen Goñi andereñoak eskola berriak eman zituen Centro Cultural Santiago «ezizena» zuen ikastolan («ikastola» hitza debekaturik zegoen).

Ikastola aurrera ateratzeko (azpiegiturak, materiala...) gurasoen konpromisoa beharrezkoa

Aurten ere, Nafarroa Oinezekin bat egin du Euskaltzaindiak. Argazkian, Andres Urrutia euskaltzainburua irakasle eta ikasle talde batekin, Parkeko eraikinean.

ARGAZKIA: NAFARROA OINEZ

izan zen, haiek kuotak ordaintzeaz gain «zozketak, ostatuan eta auzolanean antolatzen ziren». Urteek aurrera egin ahala ikasle kopurua handitu egin zen eta Miserikordia utzita Elbetera mugitu zuten 70eko hamarkada bukaeran ikastolaren egoitza, lehenago Kuarteleko Zelaitik igarota. 1983an ikastola munizipalizatu egin zen, dikadura ondoko lehen udal gober-

nuaren eskutik. Udalekotuta bai, baina Hezkuntza Ministerioak ez zuen baimena onartzen eta hortxe zirauen ixteko mehatxuak.

Urte horietan ikastolak bi eraikin zituen, Parkekoa eta Elbetekoa. 1984ko ikasturtean, gurasoen eskakizunei (mobilizazioak eta manifestazioak etengabeak izan ziren) hala-beharrez erantzunda, Udalak «El Pilar» eraikina erosi zuen. Hortik aurrera eskolak hor ematen hasi ziren, eta 1990ko azaroan, mobilizazio eta manifestazio gehiagoren ondoren OHoko maila guztiak legeztatzea lortu zuen Baztan Ikastolak. 1992an Haur Hezkuntzako gelen egoera juridikoa ere «normalizatu» egin zen eta legezko egin zen.

33 URTEKO ISPILUA

Zerikusi gutxi dauka garai bateko Nafarroa Oinez prestaketak egungoarekin. Hasteko, prestatzeko hartzen den epea askoz luzeagoa da gaur egun. Prestaketa lanak urte eta erdi inguru lehenago hasten dira. 1982ko Baztan Ikastolako Nafarroa Oinez prestaketa lanak sei hilabete lehenago hasi zituzten. Lehenengo bilerak, eta aforiak, Urpe elkartean egin ziren. Gero egin beharrekin aurrera egin ahala, Bigeraren bajea (egun botika dena) mugitu ziren, errentan.

Babesleak ere bilatu behar ziren garai horretan, eta tankera honetako gutunak idazten ziztaizkien: «Une larri honek derrigortzen gaitu eskale izatera, baina ez badugu nahi euskara desagertzea...». Herriekin ere horrela jartzen ziren harremanetan pankartaren bat jartzeko eskatzeko edo txosna jarri ahal izateko. Udako jaietan, Nafarroa osoan materiala salgai jarri zuten, besteak beste 6.500 kapela baino gehiago saldu omen zituzten. Ibilbidea antolatzeko, adibidez, Korrikan oinarritu eta jendeak kilometroak babestuko zituen diruz, txartel batean lau gunetako zigiluak eskuratuta.

Hezkuntza Sistema Propioaren alde

#BideaBadago

URRIAK 18 BAZTAN. NAFARROA OINEZ
Hamabortz, ama bat



Hainbat ikastolatan gertatzen den moduan, Iosune Ortega, Baztan Ikastolako ikasle ohia da. Aurten, irakasle taldean 8 urte daramatzala, eskolako zuzendaritza hartu du, Nafarroa Oinezi begira. Izan ere, aurten bi zuzendaritza izatea erabaki dute Baztan Ikastolan, bata lan pedagogikoaz arduratzen dena eta bestea ikastolen jaialdiaz arduratzen dena.

IOSUNE ORTEGA

Baztan ikastolako zuzendaria

«33 urteren bueltan gogoz gaude Nafarroa Oinez ospatzeko»



Argazkia: Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

Zein da Nafarroa Oinezi begira egitea egokitu zaizun lana?

Lan aunitz dago; protokolo batzordeko kidea naiz eta, horretaz gain, hainbat erabaki hartu

behar dira. Erakundeei harrera egin behar zaie, Oinezen aurreko ekimenen aurkezpenetan edo ekimenetan bertan parte hartu... Batzorde iraunkorreko

kide ere banaiz. Hor batzorde desberdinetako buruak elkartzen gara eta erabakiak hartzen ditugu.

Eta zuen erronka nagusia?

Euskararen festa hona ekartzea. 33 urteren bueltan gogoz gaude hori ospatzeko. Hemen elkarlanaz funtzionatzen dugu, dena auzolanaz egiten dugu. Adibidez, festetan Ikastxokoa jartzen dugu eta horko diruarekin berrikuntzak ordaintzen ditugu: Informatika gela sortu, komunak berritu... Baina orain oinarritzko lan batzuk ditugu horren bidez soilik asumitu ezin ditugunak; gure bi eraikinetan, besteak beste, honako obrak egin beharra dugu: sabaia konpondu behar dugu, beharrezkoa delako eta ikastola txiki geratzen ari zaigulako, eta horrela bide batez bertan gela berriak egiteko; leihoak konpondu behar ditugu, ingurumenarekin eta jasangarritasunarekin konprometituta gaudelako eta isolamendu apropos batek energia gutxitzea ahalbi-

detuko lukeelako; parkeko zoru ere konpondu behar dugu. Goiko egoitzan, gainera, patioa estali nahi dugu eta isolamendua hobetu.

Ikastola publikoa da zuena. Zertan bereizten zarete?

Gainerako hamalau ikastolekin batera ikastolen elkarteko kideak gara. Abizena ezberdina dugu, baina berdin-berdin funtzionatzen dugu. Antolamendu berbera daukagu. Gurea ikastola txikia da, eta municipalizatu izanak agian abantaila batzuk ematen dizkigu, baina gure baliabideak eta izaera xumeak dira.

Asko aldatu al da ikastola?

Ikasle ohia naiz, eta ikastolak duen berezitasuna familia izaera da. Guztiok elkar ezagutzen dugu barruan eta kanpoan. Nire oroitzapena da hemen arras goxo egoten ginela, irakasleak ama modukoak zirela, eta berdin funtzionatzen saiatzen gara. Ikastola aldatu da, bai, baina bere xarma ez da aldatu.

Zein da Baztanen eta ikastolaren arteko harremana?

Ikastola aitzindaria izan zen Baztan osoan euskarazko irakaskuntzan. Baztan berreuskalduntzeko prozesuan garrantzitsua izan zen. Baztan bailarako herri askotako ikasleak ditugu, baina batez ere herri eskola ez duten lekuetakoak, Anitz, Berrueta, Lekaroz eta abarrekoak. Horrez gain, gure gaitegian, ekintzetan, beti saiatzen gara Baztango ohiturak lantzen, herriaren eta herrien parte izaten ahalegintzen gara.

Lehenago auzolana eta elkarlana aipatu dituzu. Zerk gehiegok azpimarratzen du hori?

Familia txiki bat gara eta txikitatik egon garenok oroitzapen oso onak ditugu. Ikastolak berdin jarraitzen duela ikusteak konfiantza edo gogo puntu bat ematen dizu. Irakasleen konpromisoarekin ere zerikusia du honek. Ikastolak bere horretan jarraitzen duela eta bere lana baliozkoa dela ikusteak konpromiso handiago bat jartzea eskatzen dizu eta lanean jarraitzeko gogobetetzen zaitu. Une askotan, une latzak egon dira, irakasle eta ikasle eta familia askorentzat une gogorrak izan dira ikastolan: orduz kanpoko lanak, etengabeko mudantzak, mehatxuak, presioak... Horretan hazi izan da eskola eta garai hartako gurasoak, familiak eta langileak miresten ditugu. Euskararekiko zuten lotura argi dago azpimarratzekoa dela.

45 urteren bueltan helburuak aldatu al dira?

Argi dago ezetz, helburu berberekin jarraitzen dugula. Euskara oinarri duen irakaskuntza bultzatzean datza gure lana eta euskararen oinarritutako kalitatezko eleaniztasuna posible dela erakusten jarraitu nahi dugu. Horrez gain, lehen aipatu bezala, Baztango kultura eta Euskal Herriko kultura ezagutzera eman nahi ditugu, baita gainontzeko kulturei ateak ireki ere. Gurera datozen haurrak, aniztasunean, berdintasunean, elkartasunean, errespetuan eta partaidetzan hezi eta haztea nahi dugu.

www.gorricho.com

SISTEMAS DE DESCANSO

Sancho el Fuerte, 32. ☎ 948 17 10 24 · Avda. Villava, 2. ☎ 948 12 46 63
 Yanguas y Miranda, 19. ☎ 948 24 79 63 · Pol. Ind. Mutilva C/A. 17. ☎ 948 29 09 52



**HAMABORTZ,
AMA BAT**
NAFARROA
OINEZ 2015
BAZTAN

IKURRAK

- OSASUN GUNEA
- INFORMAZIOA
- DIRU-TRUKEA
- DENDA
- OGITARTEKOAK
- TXOSNA
- KAFEA
- PAELLADA
- TONBOLA
- BASOAK BASORAT
- TALOAK
- LAKTANTZIA GELA
- PUZGARRIAK
- IZOZKIAK + GOZOKIAK
- KOMUNAK



4. GUNEA BASABURUA

Makou **LA NAVARRA** **Coca-Cola**

10:00 ERRONKA
11:00 Kaskezur
12:00 Hesian
13:30 URKO "Guk euskaraz"
13:30 Olhan Vega
15:30 Zea Mays
17:30 Trikidantz

1. GUNEA ERBEREA

LABORAL KUTXA **eitb** **Noticias**

10:15 Xendarineko ahizpak
10:30 Asteazkenekoak
11:00 ERRONKA
11:30 Herri kirolak
12:45 Tximeleta
13:30 URKO "Guk euskaraz"
14:30 Oliver Magoa
15:30 Muixeranga
16:00 Kalakan
17:15 Mutildantzak (Jo ala jo)
17:45 Jautziak (Lau Urrats)
18:15 Larraindantza (Baztango gaitariak)

EGUNEAN ZEHAR
LABORAL KUTXA eta DDNren eskutik haur jarduerak: puzgarriak, tailerrak...

2. GUNEA ELIZONDO

RURAL KUTXA **euskaltel** **Kaiku**

10:30 Bertso saioa
11:00 Maialen
12:30 Emon
13:00 ERRONKA
13:30 URKO "Guk euskaraz"
14:00 ERRONKA Finala
14:45 Erronka: sari banaketa
15:15 Los Zopilotes Txirriak
16:30 Xutik
17:45 Tirri&Tery

EGUNEAN ZEHAR
KAIKUren eskutik jumpinga eta ludoteka.
ROCPOLISen eskutik rodomoia

3. GUNEA BAZTANGOIZA

EROSKI FUNDATOA **FUNDACIÓN CAJANAVARRA**

10:30 Erreka Dantza Taldea
11:30 Albaola erakustaldia
12:00 ERRONKA
12:30 Muixeranga tailerra
13:30 URKO "Guk euskaraz"
13:30 Irri herri anitz
14:30 Jinkana
15:30 Albaola erakustaldia
16:30 Ane eta piratekin parrandan

EGUNEAN ZEHAR
EROSKIren eskutik Irrien Lagunak Kluba
Zaiditegia (Ordoki), tirolina (BKZ)...

TALDE IBILTARIAK

Txarangak: Elutxa txaranga, Galtzagorri txaranga, Galtzarra txaranga, Kuxkuxtu txaranga, Los Incansables txaranga, Oñatiko trikitxaranga // **Txistulariak:** Mugarik Gabeko Ttuntuneroak, Jo ala jo // **Gaitariak:** Baztango gaitariak, Baigorriko gaitariak, Ezpelu gaitariak

Trikitilariak: Irats trikitixa eskola, Mendaur trikipandero eskola, Aralar musika eskolako trikitilariak, Xapiru trikitixa eskola, Durangoko trikitixa eskola // **Fanfarreak:** Fanfarre Mi Fa // **Dantzariak:** Arrola dantza taldea, Goizuetako zahagi dantza taldea, Azpeitiko Ikastola - Ikasberri

kooperatibako Gurasoen Dantza Taldea // **Batukadak:** Niarawa batukada // **Joaldunak:** Itturengo joaldunak, Zubietako joaldunak, Aurtizko joaldunak // **Kale animazioa:** Adardunak, "Kantuz" taldea

**PINTURAS
DISNAVAL**

Areta Industrialdean
Altxutxate kalea 40 zenbakia
31620 Uharte-Iruña
(Nafarroa)

www.disnaval.com
948 333 405
disnaval@disnaval.com

www.neumaticosdisnaval.es
948 33 12 65
neumaticosdisnaval@disnaval.com

Los bosques del Oinez suman casi 20.000 árboles

Casi 20.000 árboles se han plantado ya en diversas zonas de Nafarroa gracias a Oinez Basoa, una iniciativa impulsada por la Federación de Ikastolas de Nafarroa para contribuir a la recuperación tanto del medio ambiente como del euskara. Básicamente, consiste en animar a miles de personas y entidades para crear bosques y minimizar la huella ecológica de una fiesta tan multitudinaria como es el Oinez.

La idea surgió en 2008, a la vista del impacto que supone esta jornada en cuanto a consumo de recursos naturales, generación de residuos y emisión de gases de efecto invernadero. Para compensar ese impacto, se decidió crear en el lugar de celebración de la fiesta un espacio natural autóctono regenerado. El primer Oinez Basoa se llevó a cabo en 2009 en Arbizu, con la plantación de 5.200 árboles en la zona llana próxima al camping de esta localidad. El segundo bosque se creó en 2011 en el término conocido como Monte Plano de Tafalla, y consistió en la plantación de 6.700 árboles, sobre todo encinas y quejigos, que se pueden recorrer a través de la ruta denominada Sendero Oinez Basoa.

En el año 2013 el lugar elegido para continuar esta iniciativa fue el Soto de los Tetones, que durante un cuarto de siglo había estado destinado al cultivo intensivo de arroz. Es uno de los humedales más importante de Nafarroa, ya que sirve de hábitat a más de 120 especies de aves, 30 de ellas acuáticas, y fue declarado Lugar de Importancia Comunitaria (LIC). En enero de 2014 comenzó el trabajo en auzolan y se consiguió plantar los 3.000 árboles que forman el bosque de ribera previsto en el proyecto.

El último Oinez Basoa se organizó desde la ikastola de Zangoza y consiste en recuperar un antiguo vertedero en el término de La Celada, además de crear un bosque para aves y un bosque comestible, lo que en total suma 3.000 árboles.

RECUPERAR EL «MINDITZE»

En el caso de Baztan, el objetivo es ayudar a la conservación de dos especies arbóreas protegidas, el loro y el carpe, de las que quedan muy pocos ejemplares en el valle. En concreto, a principios del próximo año se creará un bosque con estas dos especies en el terreno comunal de Gainekola.

Junto a ello, se quiere recordar el compromiso secular que ha existido en Baztan para cuidar los bosques a la hora de

trabajarlos y gestionarlos. Una de las costumbres de cada pueblo era contar con un “minditze”, es decir, un vivero de plantas para regenerar los bosques. El objetivo ahora es reco-

ger testimonios orales, gráficos y visuales sobre los bosques y las actividades asociadas a ellos, como recogida de castañas, ericeras, caleras y neveras, así como diseñar juegos

en el bosque para transmitir estas costumbres baztanesas a las nuevas generaciones.

Los interesados en colaborar con Oinez Basoa pueden apadrinar un árbol a través de la pági-

na web creada con este objetivo (www.oinezbasa.eus), aportando 10 euros por cada ejemplar. La semana pasada el número de árboles apadrinados ya ascendía casi a 800.

MAILEGU BAT BEHAR
DUZU, AURPEGIAN
ANTZEMATEN ZAIZU

NECESITAS
UN PRÉSTAMO,
SE TE VE EN
LA CARA



Rural Kutxan badiugu maileguak zu bezalako jendearentzat

Erreforma bat etxean edo etxe berri bat. Ikasketa urte bat Parisen edo bidaia bat New Yorkera. Abian jarriko duzun negozio bat, bonbilla piztu baitzaizu asko pentsatu ondoren. Zure beharra edozein delarik ere, Rural Kutxan badugu mailegu bat zuretzat.



RURAL KUTXA

Ikastolak, euskararen 15 seme-alabak



Nafarroa Oinezeko bideokliparen grabazioko irudia. NAFARROA OINEZ

Hogeita hamahiru urteren bueltan Baztanen da berriz Nafarroa Oinez. Euskararen panorama, egoera, behintzat bertan aldatu da, bai, baina Baztan Ikastolako kideek ikastolako eskal irakaskuntza duina eskaini nahi dute. Eta euskara ardatz izanik eta NIEko partaide izanik, ez da harritzekoa aurtengo leloa: "Hamabortz, Ama bat". Hamabost ikastolak osatzen baitute NIE eta horien guztien ama, hastapenetan lan egin zuten guraso guztien baimenez, euskara baita.

Aurtengo jaialdiaren antolatzaileek basoaren metafora erabiltzea erabaki dute; 15 ikastolak zuhaitzak dira, eta horien bidez euskararen basoa osatzen dute Nafarroan, bakoitzak bere aldaketekin, euskalkiekin, eta euskalkien artean, baztanera. Horregatik ere, hamabortz. «Nafarroako basoa, baina, ez dago isolatuta, Euskal Herriko mendietan barrena hedatzen da, mugarik gabe, Euskal Herriko ikastolekin batera osatutako arnagune mugagabea», azaltzen dute antolatzaileek. Aldarria argia da: «Aitzinerat egin behar dugu hezkuntza euskaldun baten alde, kultura euskaldun baten alde, gizarte euskaldun baten alde, laino guztien azpitik eta sasi guztien gainetik» eta «oztopoak oztopo euskara eta euskal kultura bizi daitezen ekinean segitu».

Baina apur bat harago ere joan dira "Hamabortz, Ama bat" lelopean. Aipatu da 15 direla «Nafarroan euskararen haziak oparo lora daitezen egunez egun ekinean» ari diren ikastolak, baina badira 15 Baztango Bailara osatzen duten udalerriak: Almandoz, Amaiur, Aniz, Arraioz, Arizkun, Azpilkueta, Berroeta, Elbete, Elizondo, Erratzu, Gartzain, Irurita, Lekarotz, Oronoz eta Ziga. Ama euskarak, guztiak «maitekiro» hartzen ditu eta «erakutsi digu euskaraz solastatzen, euskara maitatzen eta zaintzen».

Euskararen jaialdiak Nafarroa Oinez izena izanik, bistakoa da zergatik den oina aurtengo ikurra. Gainera, euskararen osasuntzea «oinez, urratsez urrats



da pausoak ematen segitzea eta euskara osasunez elikatzeke ezinbertzekoa baita hauspotzea, zaintzea eta maitatzea».

Leloan oinarrituta, Baztan Ikastolako bi ikasle ohiek, Jon Barberena bertsolariak eta Iñigo Beltzunegi Iturriak, kantua osatu zuten. Lehendabiziko zatian «amengandik jasotako gauzak» biltzea erabaki zuten, eta «horietan guztietan inportanteena den hizkuntzaren jasotzea» azpimarratu. Horrela «sortzen baikara euskaldun», azaldu dute Nafarroa Oinezeko bozerra-maileek.

egin dugu eta egiten ari gara», eta ez hori bakarrik «gure hizkuntzaren bidea» ere pausoz pausoz sortzen eta hedatzen ari da. Ikurra den oin hori hamabost ikastolek osatzen dute besteak beste, hamabost herriek margotzen dute eta baztandarrek mugiarazten dute, «denok batera, euskararen alde sendo eginez aitzinerat».

Askok antzekotasunak topatuko zituzten 1982ko Nafarroa Oinezeko ikurraren eta aurtengoaren artean; izan ere, ordukoan bi oin ageri ziren logotipoan eta oraingoan bakarra. Sortzaileek honako azalpena ematen dute: «Euskarak beti behar duelako bulkada bat, nahitaezkoa

Bigarren estrofan matematikaz ari dira, euskarak etorkizuneari osasuna izan dezan sortutako formula matematikoaz.

Bukaeran, Nafarroa Oinez logotipoko urratsak aipatzen dira. Iraganeko oin urratsetan sartuko dira datozen «oin ttipiak», zaharberrituta, moldatuta, berrikuntzak eskainita. Beti ere euskararen bidea eginez.

Kantan Pantxo Etxebere *Pottokak*, Leire Onsalok, Iñigo Beltzunegik, Baztan Ikastolako ikasleek eta Elizondoko Koro Tikiak parte hartu zuten. Bideokliparen gidioa prestatu, grabatu eta editatzeko lanetan Fernando Anbustegik koordinatu zuen lantaldea.

HAMABORTZ, AMA BAT

Hamabortz aldiz itsasoratuak ditugu amaren esne tantak, hamabortz aldiz lehorreratuak belarrietan sehaska kantak.

Hamabortz aldiz entzundako hitzak gaur mingainean dantzan dakartzat. Kendurak batuz, batugaiak kenduz: kenduz, batuz... HAMABORTZ AMA BAT.

NAFARROA OINEZ
BAZTANDIK MUNDURAT
HAMABORTZ AMA BAT
ESKUARAZ MUNDU BAT

Literaturaren zenbakietan zenbat ohar, mezu eta datu. Hizkuntza za(ha)r honen bizirautea Baztanen nahi bada ziurtatu alferrik dira: erro, errokizun, errotzaile eta erro karratu Jasotakoa zatitu, banatu... (e)ta erabilerara biderkatu.

KIDE
Orain online ere bai!
www.kidedenda.com
Tafalla kalea, 33 · Iruñea · Tel. 948 23 35 14

Garijo
BITXI ETA ERLOJU DENDA
Geure tailerra dugu
46 urteko esperientzia.
San Alberto el Magno, 2. IRUÑEA
948 254 372

Casas del Irati
Pol. Industrial - SALAZAR · 606 34 62 92
948 47 02 02 · Fax: 948 47 01 21
www.casasdelirati.com · info@casasdelirati.com
Tradición e Innovación

«Bidasoko margolariak» taldeko partaide izateagatik zara ezaguna, besteak beste. Zer zen hura?

Horretan hasi zen Pikabea. Berak jarri zion izen hori mugimendu hari. Inguruko margolariak ginen, elkar ezagutzen genuenak, eta erakusketa bat egitea erabaki zen. Oso lan onak bildu ziren han eta gerora liburu bat ere argitaratu zen.

Javier Ziga margolaritza maisu izan zenuela esan daiteke?

Bai eta ez, maisu baino harekin hasi nintzen, baina ia-ia kasualitatez. Bere emaztea nire amaren lehengusina zen, eta bere beste senide bat nire familiako beste kide batekin zebilen. Bera hona etortzen zen udan eta harekin bost bat urtez jarraian ibili nintzen. Baina beste askorengandik ere ikasi dut. Esaterako, hona margolari bizkaitar bat etorri zen soldadu. Behin kointziditu genuen eta bion artean hasi ginen hemengo paisaiak margotzen. Bera minetako herrietatik zetorren. Harremana egin genuen eta Baztango margolari batzuek Bizkaiko margolariekin harremana egin eta bi erakusketa sortu ziren hortik: De Baztan a las Minas eta De las Minas a Baztan.

Nafarroa Oinezen harira, Erratzu beti izan al da herri euskalduna?

Erratzu guztiz euskalduna izan da beti, eta hemen arazotzat kontrakoa ikusten zen, jendeak erdara ez jakitea. Garai horretan bordetan banatzen zen herria. 50eko hamarkada inguruan bordak hustu egin ziren, jendea mugaz bestaldera joan zen edota hirietara... Joandako asko gerran zehar senideak joan zitzaizkiela-eta haiekin elkartzeko asmoz joan ziren. 1.100 biztanle inguru zeuden inguru honetan eta 500era jaitsi zen. Gerra iritsi arte erdara entzuteko Elizondora joan behar zenuen. Herri erdalduna Elizondo zen, baino gainontzeko herriak denak euskaldunak izan dira beti. Elizondon mugimendua egon da beti, kanpotar asko pasatu izan da, jende asko bertan instalatu... Eta horregatik da akaso horren erdalduna.

Eta eskolan nola irakasten zen?

Eskolan denetarik zegoen, egin erdaraz egin behar, baina gero euskaraz ere egiten genuen. Nire osaba-izebak izan ziren nire lehenengo maisuak eta erbesterratuak izan ziren nazionalistak izateagatik. Orduan, senar-emazte batzuk etorri ziren, hona horiek ere erbesterratuak, baina errepublikazaleak izateagatik. Oso bikote prestatua zen,

«Euskara eta margolaritza naturalak dira, eguneroko afera»

Jose Mari Apezetxeak txikitatik du gustuko margotzea, eta kasualitatez, Javier Zigaren eskutik ikasi zuen. Gerora inguruko zenbait margolariekin batera ibili zen elkarlanean eta irakasten. Erratzu bere herria bezala, guztiz euskalduna da Apezetxea. Artista ezagun hau omentzen du aurten Nafarroa Oinezek.

JOSE MARI APEZETXEA

Margolari baztandarra



Argazkia: Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS

jakintsua, baina erdalduna. Eskolan erdaraz egiten genuen, nire osaba-izebak bota egin zituzten, eta erbesterratu nazionalistak izateagatik. Gogoratzten dut gizonak ez zituela bidaltzen zituzten liburuak nahi eta berak bereak prestatzen zituela, gauzak nahi zituen moduan irakasteko.

Euskaraz hitz egitea zigortzen al zuten?

Ez. Euskaraz ez zekiten, baina errespetatzen zuten. Nahikoa zuten eskolak erdaraz ematearekin. Nik hamabi urterekin utzi nuen eskola, eta Erratzu, eta luzaroan ez nintzen bueltatu, baina ez dut entzun euskaraz hitz egiteagatik eskolan inor zigortu zutenik.

Beraz, zuretzat, euskara eta margotzea, biak, bizitzea bezain naturalak dira...

Ni aitarekin ibiltzen nintzen hemendik hara, oihalak saltzen,

eta ahal nuenean margotzen hasten nintzen. Agian, postuan jende asko pasatzen ez zenean eta, nire airera joaten nintzen eta margotu egiten nuen. Niri margotzea da gustatzen zaidana eta hori egiten dut. Euskara ere egiten dudana da, hizkuntza da. Beraz, biak natural-naturalak dira, eguneroko afera, bizitzeko afera. Euskararekin dugun arazo kanpotarrak inguruan ditugunean sortzen da. Esan nahi dut, euskaraz ari gara eta kanpotar bat sartzen bada tabernan edo, erdarara pasatzen gara, bera eroso sentitzeko edo. Garai batean, karabinero edo poliziaekin ere normala zen horrela ibiltzea. Berdin zuen gutako inor zer izan, baina txantxetan ere ibiltzen ginen beraiekin eta hobe zen ongi eramatea, eta horretarako erdarara jotzen genuen. Galdetzen ziguten txantxetan nondik pasatuko ginen mugara eta horrela erantzuten genien: «sí. vosotros vais a saber...».

www.muropapel.com

muro

eskolako eta Bulegoko hornigaiak

- BIZI GUZTIA ESKOLARAKO MATERIALA ESKAINTZEN
- ESKA IEZAGUZU KATALOGOA

P BEZEROAK

Basilio Armendariz, 2-4
Tel.: 948 23 07 32
Fax: 948 23 16 74

BURLATA

PANADERIA

Arrasate

Pol. Ind. Landazabal, calle A - nº 10
Villava - Atarrabia

OBRADOR Panadería, Tfno. 948 130 163
OBRADOR Pastelería, Tfno. 948 149 237 - Fax. 948 141 771

Matrikula epea **zabalik** Abierto plazo de matriculación

Hamabortz, ama bat

EUSKARA IKASTEAN ERRAZAGO DA METODIKAREKIN

APRENDER EUSKARA ES MAS FACIL CON METODIKA

ikaeuskaltegiak.eus

CURSOS DE EUSKARA

ika

IRUÑEA 948 222 246 | ATARRABIA 948 332 660
BORTZIRIAK 948 637 796 | BARANAIN 948 188 325
LEITZALDEA 948 610 776 | MALERREKA 948 451 555

EROSKI Nafarroa Oinez-ekin



Urriak 18
Zatoz Elizondon ospatuko den
NAFARROA OINEZ JAIRA!